

# IRUDIAK MINTZO IMÁGENES EN DISCURSO

## ARTE GARAIKIDEAREN HASTAPENAK INTRODUCCIÓN AL ARTE CONTEMPORÁNEO

2022.01.26 - 2022.04.13  
Asteazkenero  
Todos los miércoles  
18:00 – 20:00

Bederatzi saio irakasle espezializatuek eta artearen historialariek gidatuak, eta Museoaren Bildumara eta Biltegiatarara bisita, haien arduradunekin. Aurkezpena, eta gonbidatu eta publikoarekiko solasaldiak, Ane Lekuoa Artearen Historialariaren eskutik.

Nueve sesiones con profesorado especializado e historiadoras/es del arte y una visita de la mano de sus responsables a la Colección del Museo y sus Almacenes.

Presentación, e interlocución con invitados y asistentes de la mano de la Historiadora del Arte, Ane Lekuona

*Irakasleak / Profesorado:* Garazi Ansa, Haizea Barcenilla, Xabier Gantzarain, Beatriz Herráez, Catalina Lozano, Ismael Manterola, Enrique Martínez Goikoetxea, Elena Roseras, Idoia Zabaleta.

*Koordinazioa / Coordinación:* Ane Lekuona.

## **ANE LEKUONA**

26 urtarrila, enero

## **ISMAEL MANTEROLA**

9 otsaila, febrero

## **GARAZI ANSA**

16 otsaila, febrero

## **XABIER GANTZARAIN**

23 otsaila, febrero

## **IDOIA ZABALETA**

2 martxoa, marzo

## **ELENA ROSERAS**

9 martxoa, marzo

## **ENRIQUE MARTINEZ GOIKOETXEA**

16 martxoa, marzo

## **HAIZEA BARCENILLA**

23 martxoa, marzo

## **CATALINA LOZANO**

6 apirila, abril

## **ARTIUM MUSEOA BILDUMA COLECCIÓN MUSEO ARTIUM**

13 apirila, abril

Prezioa: Artium Museoaren Adiskideak: doan. Arte Ederretako eta Artearen Historiako fakultateetako ikasleak: doan. Homologatutako ikasketetako ikasleak: 25 €. Gainerakoak: 60 €. Aurretiko izen-emateak (toki mugatua): abenduaren 1etik aurrera. Argibideak eta erreserbak: 945209020, museoaren ordutegian.

Precio: Amigas y Amigos del Museo Artium, gratuito. Alumnas/os de las Facultades de Bellas Artes e Historia del Arte, gratuito. Alumnas/os de estudios homologados, 25 €. Otros, 60 €. Preinscripciones (aforo limitado): desde el 1 de diciembre. Información y reservas: Tel 945209020, en horario del museo.

«Arte garaikidea ez da niretzat». Hitz horien oihartzuna entzuten dut nire inguruan esaera, klitxe edo mantra modura. Eta zera proposatzen dut nik: artetik eta artearekin bat pentsatzea eztabaidatzeko, eraldatzeko eta aurkitzeko. Artetik eta artearekin bat pentsatzea elkar laguntzeko, entzuteko eta ezagutzeko.

*Irudiak mintzo* ikastaroaren bidez arte garaikidearen historiara, hikuntzara eta haren inguruko eztabaidetara hurbilduko gara. Museoaren bilduma eta aldi baterako erakusketak ardatz harturik, hamar saio antolatu dira espezialistek gidatuta; saioz saio, ibilbide historiko bat osatzen joango gara, hirurogeita hamarrekoko hamarkadatik gaur egunera arte, artearen eta irudien inguruan sortu diren proposamen eta ikuspegi batzuk ezagutzeko.

Ikastaroaren ardatz nagusiak hauek izango dira: artearen, gizarte-mugimenduen eta politika instituzionalen loturak; egiteko, adierazteko eta historiatzeko feminismoak egiten duen kritika; erakusketa eta idazketak duen agentzia diskurtsiboa edo begirada kolonialak plazaratutako kritika. Ikastaroa topalekua izango zaigu begirada eta galdera berriekin arteaz eta irudien berrirakurketaz aritzeko. Gure oroimena berrikusteko, eta bestelako ahots batzuk entzun eta geure buruak haietan ezagutarazteko.

«El arte contemporáneo no es para mí». Resuenan estas palabras cerca de mí, como una frase hecha, un cliché, un mantra. Y yo propongo: pensar desde y con el arte para debatir, transformar y encontrar. Pensar desde y con el arte para acompañarnos, escucharnos y conocernos.

El curso *Imágenes en discurso* ofrece un acercamiento a la historia, al lenguaje y los debates que surgen en torno al arte contemporáneo. Tomando como punto de encuentro la colección y las exposiciones temporales del museo, a lo largo de diez sesiones y acompañadas por diferentes especialistas, trazaremos un recorrido histórico que nos permita conocer algunas de las propuestas y miradas que han ido surgiendo en torno al arte y las imágenes desde los años setenta hasta la actualidad.

Las interconexiones que se establecen entre el arte, los movimientos sociales y la política institucional, la crítica feminista a los modos de hacer, representar e historiar, la agencia discursiva de las exposiciones y la escritura, o la crítica formulada desde las miradas decoloniales serán algunos de los ejes vertebradores de este curso. Un lugar de encuentro desde donde releer el arte y las imágenes a partir de nuevas preguntas y miradas. Revisar nuestra memoria, para así escuchar otras voces y reconocernos en ellas.

**Ane Lekuona**

# ANE LEKUONA



Ane Lekuona Artearen Historia Saileko irakaslea da, eta doktoretesia amaitzen ari da. Lan horretan, 1950-1972 bitarteko Euskal Herriko artearen historia berraztertzen ari da, ikuspegi feministatik. Haren ikerketa-ildoak ikuspegi feministarekin, genero-ikerketarekin eta diskurtso narratiboen eta hegemonia politiko-kulturalaren arteko gurutzadurekin lotuta daude. Artikuluak idatzi ditu arte garaikideari buruzko aldizkari zientifiko eta argitalpenetan, eta askotariko erakusketa-proiektuetan parte hartu du, hala nola *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan* proiektuan (Komisario Berriak, Artium Museoa), Iñigo Gómezekin eta Itziar Gutiérrezekin batera.

Ane Lekuona es profesora en el Departamento de Historia del Arte y está finalizando su tesis doctoral, en la cual revisa, desde una perspectiva feminista, la historia del arte del País Vasco entre los años 1950-1972. Sus líneas de investigación se orientan hacia las perspectivas feministas, los estudios de género y los cruces entre los discursos narrativos y la hegemonía político-cultural. Ha escrito artículos en revistas científicas y publicaciones sobre arte contemporáneo, y ha participado en proyectos expositivos como *Ez dakit zer pasatzen den azken aldi honetan* (Komisario Berriak, Museo Artium), junto a Iñigo Gómez e Itziar Gutiérrez.

**26 URTARRILA, ENERO**  
**18:00**

## **ANE LEKUONA**

(Ikastaroaren koordinatzailea | Coordinadora del curso)

## **BEATRIZ HERRÁEZ**

(Artium Museoa. Zuzendaria | Directora)

## **IKASTAROAREN AURKEZPENA ETA HELBURUAK**

Lehen saioan ikastaroaren helburuez jardungo dugu: arte garaikidea ulertzeko funtsezko planteamenduak aurkeztea, museoaren bildumatik eta aldi baterako erakusketetatik abiatuta. Pentsatuko dugu zer aukera eskaintzen dizkigun arte garaikideak historia naturalizatuak kolokan jartzeko, ikasitako begiradak identifikatzeko eta ikusezin bihurtutako errealitateen aldean kokatzeko.

## **PRESENTACIÓN Y OBJETIVOS DEL CURSO**

En este primer encuentro hablaremos de los objetivos del curso: presentar planteamientos fundamentales para entender el arte contemporáneo, tomando como eje la colección y las exposiciones temporales del museo. Pensaremos en las posibilidades que nos brinda el arte contemporáneo para poner en duda las historias naturalizadas, identificar las miradas aprendidas y posicionarnos con aquellas realidades invisibilizadas.

# ISMAEL MANTEROLA



Ismael Manterola Euskal Herriko Unibertsitateko doktorea eta unibertsitate horretako Artearen Historia eta Musika Departamentuko irakaslea da. Artikuluak eta liburuak argitaratu ditu Euskal Herriko XX. mendearen hasierako arteari buruz, hala nola *Hermes y los pintores vascos de su tiempo* (2006), *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean* (2017) eta «Franquismo y censura en las artes plásticas: un arte sin censura en el horizonte» (2020). Zenbait erakusketaren komisario ere izan da, *Trama e Hilos sueltos: diálogo entre dos colecciones de arte vasco* (Arabako Arte Ederren Museoa) erakusketarena esaterako, eta arteari eta kulturari buruz idazten du *Berria* egunkarian.

Ismael Manterola es doctor por la Universidad del País Vasco y profesor en el Departamento de Historia del Arte y Música de la misma universidad. Ha publicado artículos y libros sobre arte en el País Vasco a principios del siglo XX, como *Hermes y los pintores vascos de su tiempo* (2006), *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean* (2017) o «Franquismo y censura en las artes plásticas: un arte sin censura en el horizonte» (2020). Es también comisario de exposiciones como *Trama e Hilos sueltos: diálogo entre dos colecciones de arte vasco* (Museo de Bellas Artes de Álava), y escribe sobre arte y cultura en *Berria*.

**9 OTSAILA, FEBRERO**  
**18:00**

### **HIRUROGEITA HAMARREKO HAMARKADA: ARTEA GATAZKAREN ERDIGUNEAN**

Saio honetan, aztergai izango dugu frankismo berantiarreko eta demokraziaren hastapeneko Euskal Herriko testuinguru soziokultural eta politikoa, baita arteak eta hainbat artistak garai hartan bete zuten eginkizuna ere. Saiatuko gara ulertzen nola bihurtu zen berrogeita hamarreko hamarkadan sorturiko hizkuntza plastiko bat aro politiko berriko euskal imaginario kolektiboaren parte. Era berean, aztertuko dugu zer lotura duen fenomeno horrek euskal artearen historia idazteko moduarekin.

### **AÑOS SETENTA: EL LUGAR DEL ARTE EN MEDIO DEL CONFLICTO**

La sesión estará dedicada al contexto sociocultural y político que atravesó el País Vasco en el tardofranquismo y entrada de la democracia, y al papel que el arte y algunos artistas tuvieron en este marco. Prestaremos atención a entender de qué manera un lenguaje plástico surgido en los años cincuenta pasó a formar parte del imaginario colectivo vasco de la nueva etapa política. Asimismo, reflexionaremos en torno a cómo este fenómeno se conecta con la manera en que se escribió la historia del arte vasco.

# GARAZI ANSA



Garazi Ansa Euskal Herriko Unibertsitateko doktorea eta unibertsitate horretako Artearen Historia eta Musika Departamentuko irakaslea da. Haren ikergai nagusia da erakusketak-diskurtoen azterketa eta berazterketa historiografikoa, genero-ikuspegitik. Zenbait erakusketaren komisarioa izan da; azken lanen artean, aipatzekoak ditu honako hauek: *Hemen dira hutsunean igeri egindakoak. Tururu* (Azkuna Zentroa, Artium), *Festa Pagana* (Universidad Miguel Hernández, Elx) eta *Baginen Bagara* (San Telmo Museoa, Donostia), azken biak Haizea Barcenillarekin batera komisaratuak. Halaber, artearen kritika *idazten* du *Berria* egunkarian.

Garazi Ansa es doctora por la Universidad del País Vasco y profesora en el Departamento de Historia del Arte y Música de la misma universidad. Su investigación se centra especialmente en el análisis de los discursos expositivos y la revisión historiográfica desde la perspectiva de género. Es también comisaria de exposiciones; entre sus últimos trabajos se encuentran *Hemen dira hutsunean igeri egindakoak. Tururu* (Zakuna Zentroa, Artium Museoa), *Festa Pagana* (Universidad Miguel Hernández de Elche) y *Baginen Bagara* (San Telmo Museoa, Donostia), comisariados estos dos últimos junto con Haizea Barcenilla. También escribe crítica de arte en *Berria*.

**16 OTSAILA, FEBRERO**  
**18:00**

### **GEURE BURUA BESTE HISTORIA BATZUETAN EZAGUTZEA: EUSKAL ARTEAREN HISTORIAKO GENEALOGIA FEMINISTAK**

Saio honetan kritika feministak artearen historiari dagokionez hirurogeita hamarreko hamarkadatik izan duen helburuetako batean sakonduko dugu: genealogia ahantziak berreraikitzea, bestelako artearen historia batzuk imajinatzen bitartekari garrantzitsua baita. Hain zuzen ere, arreta jarriko diegu hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik Euskal Herrian jarduera artistikoei mugimendu feministaren zabalkundearekin izan zuten loturari. Era berean, arlo politikoaren eta artistikoaren artean kokatzen diren proposamen hauei —kartelgintzari, esaterako— erreparatzeak lurraldearen memoria artistikoa zer parametrotan oinarritzen den birpentsatzera garamatza.

### **RECONOCER NOS EN OTRAS HISTORIAS: GENEALOGÍAS FEMINISTAS EN LA HISTORIA DEL ARTE VASCO**

En este encuentro profundizaremos en uno de los objetivos marcados por la crítica feminista dentro de la historia del arte desde los años setenta: la reconstrucción de las genealogías olvidadas que nos ayuden a imaginar otras historias del arte. Concretamente, atenderemos las conexiones que se establecen desde mediados de la década de los setenta en el País Vasco entre las prácticas artísticas y la entrada del movimiento feminista. Asimismo, poner el foco en estas propuestas que, como la cartelería, se sitúan entre lo político y lo artístico, nos obliga a repensar los parámetros en los que se sustenta la memoria artística de la región.

# XABIER GANTZARAIN



Xabier Gantzarain Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako lizentziaduna da, eta Arte Garaikideko master bat egin zuen Unibertsitate Autonomoan. Euskara-irakasle, tabernari, zutabegile, azal-egile, telebistarako giduigile, irratiko kolaboratzaile eta hainbat hedabidetako arte-kritikari gisa lan egin du. Kalostra arte-eskola-  
ren koordinatzailea izan zen, eta, gaur egun, Dinamoia sorkuntza-esparrua koordinatzeko ardura du. Bestalde, hainbat argitalpen plazaratu ditu, hala nola *Lisboa min* (2002), *Van Gogh, bihotzean eguzkia* (2002), *Epelde. Mende baten soinua* (2004) eta *Zuloa* (2018).

Xabier Gantzarain es licenciado en Bellas Artes en la Universidad del País Vasco y cursó un Máster en Arte Contemporáneo por la Universidad Autónoma. Ha trabajado de profesor de euskera, barman, columnista, portadista, guionista de televisión, colaborador de radio y crítico de arte en diferentes medios. Fue coordinador de la escuela de arte Kalostra y en la actualidad coordina el espacio de creación Dinamoia. Asimismo, es autor de diversas publicaciones como *Lisboa min* (2002), *Van Gogh, bihotzean eguzkia* (2002), *Epelde. Mende baten soinua* (2004) y *Zuloa* (2018).

**23 OTSAILA, FEBRERO**  
**18:00**

## **FORMAREN ETA IDEIAREN ARTEAN**

Lehenik eta behin, arte kontzeptualaren joerak aldarrikatzen dituen planteamendu teorikoak aztertuko ditugu. Horrela, ikasitakoa euskal testuinguruko zenbait artistaren lanarekin lotuko dugu, kontuan hartuta modu asko daudela forma eta ideia uztartzeko. Zer gertatzen da artelana formatik askatzen denean, zera, esperientzia estetiko batetik espero denetik askatzen denean? Ar-teaz jartuten duen idazkera erlazio hori pentsatzeko espazio bat izan daiteke?

## **ENTRE LA FORMA Y LA IDEA**

Iniciaremos el encuentro revisando los planteamientos teóricos que define la corriente del arte conceptual. Con ello, conectaremos lo aprendido con el trabajo de algunos artistas del contexto vasco, considerando la diversidad de formas en las que se establece la conexión entre la forma y la idea. ¿Qué ocurre cuando la obra de arte se libera de la forma, de lo esperado en una experiencia estética? ¿Es la escritura sobre arte un espacio desde donde pensar esa relación?

# IDOIA ZABALETA



Idoia Zabaleta koreografo, biologo, kudeatzaile, irakasle eta dantza-zuzendaria da. Dantza Berria eta Inprobisazioa ikasi ditu, eta interprete eta sortzaile gisa aritu da bere Moare Danza taldearen buru. Ikasketaz herrien dinamikan eta ekosistemetan espezializatutako biologoa izateak eragin nabarmena du haren lanean, interes berezia baitu eszenan parte hartzen duten agenteen arteko tentsioekiko eta elkarreraginekiko. 2008az goerotik, AZALA sorkuntza-espazioa koordinatzen du Juan Gonzálezekin.

Idoia Zabaleta es coreógrafa, bióloga, gestora, profesora y directora de danza. Formada en Nueva Danza e Improvisación, ha colaborado como intérprete y creadora al frente de su compañía Moare Danza. Su formación como bióloga especializada en ecosistemas y dinámica de poblaciones se advierte en su interés por las tensiones e interrelaciones que se generan entre los diferentes agentes partícipes de la escena. Desde 2008, junto con Juan González, coordina el espacio de creación AZALA.

## **2 MARTXOA, MARZO**

### **18:00**

#### **SARTZEA**

Gorputzean sartzeko moduez jardungo dugu saio honetan. *Hondartzan aurrera goaz eta urrutira fardel bat ikusi dugu ur ertzean. Hurbildu eta fardela beste fardel batzuek osatuta dago. Hondar bustiaren kolorekoak dira. Ondoan belaunikatu eta amasa hartzen ari dela ohartzen gara. Arnasa dela diogu puztu eta hustu egiten delako. Eskuak azaleraren azpitik sartuko ditugu, eta masa magalean hartuko dugu. Haren bolumena gure bularraren parean. Hankak egokituko ditugu pisua jasotzeko, eskuarekin buruari eutsiko diogu, amasa sentituko dugu klabikulan. Elkar kulunkatuko dugu. Marea gora doa eta ur eta hondar fardela gorputzaren gainean barreiatzen da.*

#### **ENTRAR**

La sesión estará dedicada a pensar y practicar las formas de entrar en el cuerpo. *Estamos caminando por la playa y vemos a lo lejos un bulto sobre la orilla. Nos acercamos y vemos que el bulto está formado por otros bultos. Son del color de la arena mojada. Nos arrodillamos a su lado y observamos que respira. Respiración decimos porque se infla y se desinfla. Introducimos las manos por debajo de su superficie y recogemos su masa en nuestro regazo. Su volumen a la altura de nuestro pecho. Acomodamos las piernas para recoger su peso, sujetamos su cabeza con la mano, sentimos su aliento en la clavícula. Nos mecemos mutuamente. La marea va subiendo y el bulto de agua y arena se desparrama sobre el cuerpo.*

# ELENA ROSERAS



Elena Roseras Geografia eta Historiako lizentziaduna da, baita Dokumentaziokoa ere, eta bi master egin ditu: Bibliotekonomia eta Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea. Hainbat erakundetan lan egingo da, hala nola Sancho el Sabio fundazioan eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzako Liburu eta Liburutegi Zerbitzuan. Gaur egun, Artium Museoaren Liburutegi, Dokumentazio eta Argitalpenen arduraduna da. Artikulu espezializatuak idatzi ditu, eta berrikuntzaren kudeaketarekin eta informazio- eta dokumentazio-zerbitzuekin loturiko argitalpenen koordinatzailea izan da.

Elena Roseras es licenciada en Geografía e Historia, también en Documentación, y cuenta con dos másteres en Biblioteconomía y Sociedad de la Información y Conocimiento. Ha trabajado en instituciones como la Fundación Sancho el Sabio y el Servicio de Libro y Bibliotecas en la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco. En la actualidad es Responsable de Biblioteca, Documentación y Publicaciones del Museo Artium. Es autora de artículos especializados y ha coordinado publicaciones relacionados con la gestión de la innovación y los servicios de información y documentación.

**9 MARTXOA, MARZO**  
**18:00**

### **DOKUMENTAZIO PROZESUA, ARTEAN**

Iturri dokumentalak aukeratzeko, prozesatzeko, babesteko eta hedatzeko prozesu dokumentala funtsezkoa da artelanak dagokien testuinguru sozialean kokatzeko eta komisariotza-lanaren oinarritzko elementua ere bada. Saio honetan, gaur egungo arte garaikidearen museoetako dokumentazio-zentroen zereginetan, funtzionamenduan eta erronketan sakonduko dugu. Azterketa hori egiteko Artium Museoaren dokumentazio-proiektua hartuko dugu oinarri.

### **PROCESOS DE DOCUMENTACIÓN EN EL ARTE**

El proceso documental de selección, procesamiento, preservación y difusión de las fuentes documentales es determinante para la contextualización de las obras artísticas en su contexto histórico social y estético, así como un elemento esencial del trabajo curatorial. En esta sesión nos adentraremos a conocer el cometido, funcionamiento y los retos a los que se enfrentan en la actualidad los centros de documentación inscritos en los museos de arte contemporáneo. Para ello, nos centraremos en el proyecto documental del Museo Artium.

# ENRIQUE MARTÍNEZ GOIKOETXEA



Enrique Martínez Goikoetxea Artium Museoko Bildumaren Kontserbatzailea da, eta museo horretan osatu du bere ibilbide profesionala. Arte lizentziatura eskuratu zituen, eta Guggenheim Bilbao Museoaren Museistika Arloan lan egin zuen Artium Museoan hasi aurretik. Beste eginkizun batzuez gain, Aldi Baterako Erakusketen komisarioa izan da 2005 eta 2009 bitartean, eta, gerora, Bildumaren arduraduna. Erakusketen kontzeptualizazioan, baita zentroaren argitalpenetan ere partu hartu du.

Enrique Martínez Goikoetxea es Conservador de la Colección en el Museo Artium, lugar en el que ha desarrollado su trayectoria profesional. Licenciado en Bellas Artes y con un máster en Conservación de Arte Contemporáneo, trabajó en el Área Museística del Museo Guggenheim Bilbao antes de su incorporación al Museo Artium. Entre otras funciones, entre 2005 y 2009 ha ejercido como Comisario de las Exposiciones Temporales para posteriormente responsabilizarse de la Colección, participando en la conceptualización y comisariado de exposiciones, así como en las publicaciones del centro.

**16 MARTXOA, MARZO**  
**18:00**

### **HISTORIAK ETA BILDUMA**

Artium Museoaren bildumak nortasun propioa eta izaera berezia ditu, eta gure testuinguruko beste museo batzuekiko osagarria da. 2002ko apirilaren 26an ireki zituen ateak museoak, eta, harrezkero, erakusketa-programa oparoa garatu du, baita kultur ekitaldien agenda betea ere, kultura garaikideari, hezkuntzari eta gaur egungo artearen zabalkundeari loturik. Saio honen gaia Artium museoaren historia, haren jatorria eta sarbide-politikak izango dira, eta euskal arte garaikidearen bilduma osoenaren eta Espainiako gaur egungo arte-bilduma adierazgarrietakoaren parte diren obra ikur batzuk nabarmenduko ditugu, bilduma horri esker bihurtu baita Artium ikusmira artistiko nazionalaren altxor nagusienetakoa.

### **HISTORIAS Y COLECCIÓN**

La Colección Artium Museoa alimenta una identidad propia y un carácter diferencial, complementario respecto a otros museos de nuestro contexto. Inaugurado el 26 de abril de 2002, el museo ha desarrollado un ambicioso programa de exposiciones, así como una intensa agenda de actividades culturales vinculadas a la cultura contemporánea, a la educación y a la difusión del arte actual. La sesión estará dedicada a la Historia del Museo Artium, sus orígenes y políticas de acceso, y apuntará algunas obras paradigmáticas de aquellas que conforman la más completa colección de arte vasco contemporáneo y una de las más relevantes de arte español actual, que ha convertido el Museo Artium en uno de los activos fundamentales del panorama artístico nacional.

# HAIZEA BARGENILLA



Haizea Barcenilla Euskal Herriko Unibertsitateko doktorea da, eta unibertsitate horretako Artearen Historiako eta Musikako Departamentuko irakaslea. Museologia, komisariatza, arte garaikidea eta genero-ikuspegia ditu ikerketa-ildo nagusiak. Erakusketen komisarioa ere bada; azkenaldiko lanen artean hauek ditu bereziki nabarmentzekoak: *Festa Pagana* (Universidad Miguel Hernández, Elx) eta *Baginen Bagara* (San Telmo Museoa, Donostia), Garazi Ansarekin batera komisariatua. Artikulu zientifikoak ez ezik, arteari eta kulturari buruz idazten du *Berria* egunkarian, eta Euskadi Irratiko *Amaraura* saioaren kolaboratzailea da.

Haizea Barcenilla es doctora por la Universidad del País Vasco y profesora en el Departamento de Historia del Arte y Música de la misma universidad. Sus líneas de investigación se organizan en torno a la museología, el comisariado, el arte contemporáneo y la perspectiva de género. Es también comisaria de exposiciones; entre sus últimos trabajos se encuentran *Festa Pagana* (Universidad Miguel Hernández de Elche) y *Baginen Bagara* (San Telmo Museoa, Donostia), comisariados junto con Garazi Ansa. Además de artículos científicos, también escribe sobre arte y cultura en *Berria* y es colaboradora del programa *Amaraura* de Euskadi Irratia.

**23 MARTXOA, MARZO**  
**18:00**

### **ERAKUSKETAN IKUSIKO DUGU ELKAR**

Saio honetan erakusketek eta museoek artearekin dugun harremana nola baldintzatzen eta eragiten duten gaiaren inguruan arituko gara. Aro garai-kidetik aurrera, erakusketa-aretoan gertatzen dira artearen eta publikoaren arteko elkartze gehienak. Kulturaz dugun kontzepzioaren barruan espazio horiek naturalizatuak daude, eta, hala, neutrotzat ditugu; baina esanahiz beteriko tokiak dira eta narratiba oso zehatzak eraikitzen dituzte. Hala, ikusiko dugu nola eraiki diren erakusketa-metodoen bidez askotariko diskurtsoak, baita ere horiek zenbaterainoko indarra duten kontaketa normatiboak sortzeko, zein iraultzeko.

### **NOS VEMOS EN LA EXPOSICIÓN**

En esta sesión trataremos la influencia de las exposiciones y los museos en el tipo de relación que establecemos con el arte. A partir de la época contemporánea, la mayoría de encuentros entre arte y público se dan en las salas de exposiciones. Aunque estos espacios estén naturalizados dentro de nuestra concepción de la cultura y por ello los sintamos como neutros, son en realidad lugares cargados de significados, que construyen narrativas muy específicas. Veremos cómo se han construido diferentes discursos a través de los métodos expositivos, y el poder que estos tienen tanto para crear relatos normativos como para subvertirlos.

# CATALINA LOZANO



Catalina Lozano komisario eta iker-tzaile independentea da. Haren iker-keta-ildo nagusiak kontaketa txikiak eta kontaketa historiko nagusien edo legitimatuen berrazterketa dira. Narratiba kolonialak eta naturaren eta kulturaren arteko bereizketa modernoaren dekonstrukzioa izan dira haren komisariatza- eta argitalpen-proiektu askoren abiapuntu, honako haue-na, esaterako: *A Natural History of Ruins* (Pivô, São Paulo), *El sauce ve la imagen de la garza de cabeza* (TEA, Tenerife), *Ganar perdiendo* (Centro-Centro, Madril) eta Mariana Castillo Deball artistaren *Amarantus* (MUAC, Mexiko Hiria; Artium Museoa, Vitoria-Gasteiz). Berlingo 8. Biurtekoko talde artistikoaren parte izan zen (2014). Gasworks (Londres) egonaldi-programaren arduraduna ere izan da, eta arte garaikideko katalogoeta-rako eta aldizkarietarako idazten du.

Catalina Lozano es comisaria e inves-tigadora independiente. Sus líneas de investigación se centran en los re-latos menores y en la revisión de las narrativas históricas dominantes. El análisis de narrativas coloniales y la deconstrucción de la división moder-na entre naturaleza y cultura han sido puntos de partida para muchos de sus proyectos curatoriales y editoria-les recientes como *A Natural History of Ruins* (Pivô, São Paulo), *El sauce ve la imagen de la garza de cabeza* (TEA, Tenerife), *Ganar perdiendo* (Centro-Centro, Madrid) o la exposición *Amarantus* de la artista Mariana Castillo Deball (MUAC, Ciudad de México; Museo Artium, Vitoria-Gasteiz). Formó parte del equipo artístico de la 8ª Bial de Berlín y ha sido responsa-ble del programa de residencias de Gasworks (Londres). También escribe para catálogos de arte contemporá-neo y publicaciones periódicas.

**6 APIRILA, ABRIL**  
**18:00**

### **TENTISIO KOLONIALAK ETA AZALERATZEN ARI DIREN SUBJEKTIBITATEAK**

Saio honetan Latinoamerikan botereak duen izaera koloniala eta lurralde hartan hainbat artista-belaunaldik herentzia kolonialari aurre egiteko hartutako bideen oinarriak aztertuko ditugu, baina baita kontinentearen historia kontatzean sortzen diren tentsioak ere. Ondoren, arreta jarriko diogu Mariana Castillo Deballen lanari, haren lan-metodologiei eta berak «objektu deseroso» deritzenarekin lan egiteko ikerketa-interesei.

### **TENSIONES COLONIALES Y SUBJETIVIDADES EMERGENTES**

La sesión abordará nociones básicas sobre la colonialidad del poder en Latinoamérica y la forma en la que artistas de diferentes generaciones han abordado las herencias coloniales en la región, pero también las tensiones que surgen al narrar la historia del continente. En un segundo momento, la sesión se centrará en el trabajo de Mariana Castillo Deball y sus metodologías de trabajo e intereses de investigación para trabajar con lo que ella llama «objetos incómodos».

# ARTIUM MUSEOA BILDUMA

## COLECCIÓN MUSEO ARTIUM



Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian.  
Prácticas artísticas en el País Vasco entre 1977 y 2002.

Artium Museoa Bilduma ondare-funts publiko aparta da, ia 2.400 artelanez osatua. Funts horien corpusak hogeigarren mendeko lanak eta egileak biltzen ditu, berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera arte egindako ekoizpenak batez ere. Bilduma honen berezitasunak definitzen du museoaren eginkizuna, funtsezko ekipamendua baita azken hamarkadetan Euskal Herrian garatutako praktika artistikoetara hurbiltzeko. Erakundearen eginkizun programatikoa da ikusgarritasun egokia ematea eta haren ondare-balioa gizarteratzea.

La Colección Museo Artium constituye un excepcional fondo patrimonial contemporáneo de carácter público integrado por casi 2.400 obras de arte. El corpus de estos fondos incluye obras y autores del siglo veinte e incide fundamentalmente en producciones realizadas desde los años cincuenta hasta la actualidad. La singularidad de esta colección define la función del museo, en tanto que equipamiento clave para aproximarse a las prácticas artísticas desarrolladas en el contexto del País Vasco en las últimas décadas. Dotar de una adecuada visibilidad y socializar su valor patrimonial es una misión programática de la institución.

**13 APIRILA, ABRIL**  
**18:00**

### **BILDUMAREN BISITA**

Ikastaroa amaitzeko, bisita egingo diogu museoko bildumari. Ibilbide horretan, askotariko loturak egin ahal izango ditugu museoaren funtsetako artelanen eta astez aste landutako ideia, ikuspegi eta gogoetekin. Bisitariarentzat oro har ikusgai ez dagoen espazio honetan kokatzeak arte garaikideko museoak gaur egungo gizartean betetzen duen tokia birpentsatzera eramango gaitu.

### **VISITA A LA COLECCIÓN**

Cerraremos el curso visitando la colección del museo. El recorrido nos brindará la oportunidad de entablar distintas conexiones entre las obras de arte de los fondos del museo con las diferentes ideas, miradas y reflexiones que habremos trabajado a lo largo de las semanas. Situarnos en este espacio, por lo general invisible para el visitante, nos llevará a repensar el lugar que ocupa un museo de arte contemporáneo en la sociedad actual.

# ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco  
Museum of Contemporary Art of the Basque Country